

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza

2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 17an eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak.

Urriaren 1eko 39/2015 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 17an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

15. ildoak. Hezkuntza. Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru-laguntzak. 2020-2021 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an onartu zituen Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak, 2020. urterako. Oinarri orokor horiek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, ALHAO) argitaratu ziren, 147. zenbakian, 2019ko abenduaren 23an, zehazki, eta webgunean (vitoria-gasteiz.org/subvenciones) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke. Deialdi espezifiko honetara aurkeztu nahi duten ikastetxeek bertara etorri beharko dute eskaerak nola eta non aurkeztu behar diren jakiteko, eta eskaera egiten duten ikastetxeen baldintzak eta betebeharrak, diru-laguntzak justifikatzeko modua, formularioak eta abar ezagutzeko.

1. Diru-laguntzen ildoak

15. ildoak. 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzak.

2. Sarrera

Vitoria-Gasteizko hiriak, Hiri Hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, hezkuntza inklusiboak pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa

denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar duela ulertuta; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboek erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboek.

Diru-laguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. Deialdiaren xedea

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

4. Erakunde onuradunak

Derrigorrezko hezkuntzako ikaskuntzak eskaintzen dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2020-2021an Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez gain, garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

5. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 15.000,00 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Hezkuntza eta Kultura Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2020-2021 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbateko hori:

– 7.477,00 euroko kreditua gehienez, 2020ko azaroaren 2tik abenduaren 22ra bitarteko aldirako, 2020rako udal-aurrekontuan Hezkuntza eta Kultura Sailari dagokion 2319 02 3261 48108 aurrekontu-sailaren kargura.

– 7.523,00 euroko kreditua gehienez, 2021ko urtarrilaren 1etik ekainaren 18ra bitarteko aldirako, betiere 2021ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

6. Diruz lagunduko den zerbitzua

2020ko azaroaren 2tik 2021ko ekainaren 18ra bitartean ikastetxeak garraio kolektiboaren esparruan izan ditzakeen gastuetarako emango dira diru-laguntzak, baldin eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzeko ikastetxeko ikasleek garraio kolektibo horiek erabili behar izan badituzte; hauek dira programa horiek: Arte eta Historia Ibilbideak, Gasteiztxo eta Musika Adierazpena.

Garraio publiko gisa hartuko dira bai garraio kolektibo publikoa (autobusa eta tranbia) eta bai ikastetxeak xede horretarako kontratatutako garraio kolektiboa.

7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2020ko urriaren 30ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2. Eskabideak aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkez daitezke, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

8. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

– Ikastetxeko zuzendariak sinatutako diru-laguntzaren eskabidea, Vitoria-Gasteizko Udalak 2020rako emandako diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretako ereduaren arabera (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia); webgune honetan ere eskura daitezke: vitoria-gasteiz.org/subvenciones

– 2020-2021 ikasturtean Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatu dituen eta ikastetxea izena emanda dagoen hezkuntza-programak (Arte eta Historia Ibilbideak, Gasteitzo eta Musika Adierazpena) biltzen dituen zerrenda, eta gastuaren aurreikuspena (oinarri espezifiko hauekin batera doan 1. eranskina).

Hezkuntza Zerbitzuan diru-laguntza lehen aldiz eskatzen bada, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, ikastetxeak izan behar duela titularra.

9. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen barneko diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandakoekin. Nolanahi ere, diru-laguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

10. Diru-laguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez emango dira, 11. oinarriak ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, balioespen-txosten tekniko eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri espezifiko hauetan zehaztutako irizpideekin bat etorrira.

Xede horretarako, kide anitzeko organo eskuduna eratuko da, eskabideak eta diru-laguntzak emateko proposamena balioesteko. Hezkuntza Zerbitzuko buruak eta Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Programen Ataleko bi pertsonak osatuko dute organo hori.

Halaber, Zerbitzuko Administrazio Orokorreko goi-mailako teknikaria izango da instrukzio-organoa, eta hark egingo ditu, ofizioz, diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamenerako kontuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Tokiko Gobernu Batzarrak ebaztuko du diru-laguntzak emango diren, huraxe baita organo eskuduna.

11. Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, baina ezin izango du inoiz ere gainditu elkarte bakoitzak egindako gastuaren ehuneko 100.

Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) Deialdiko kredituaren ehuneko 50 onartutako ikastetxeek aurreikusitako gastuaren arabera proportzionalki banatuko da. Atal honetan emandako diru-laguntzak ezin izango du gainditu 1.000,00 euroko zenbatekoa.

Atal honetan emango den diru-laguntza honela zehaztuko da:

- Ikastetxeren batzuek 1.000,00 euroko diru-laguntza gainditzen badute, eman daitekeen gehieneko diru-laguntza jasoko dute, hau da, 1.000,00 euro.
- Horrelako ikastetxerik bada, horiek kontuan hartuta eta, halaber, dagokien diru-laguntzaren zenbatekoa ere kontuan hartuta, berriro aplikatuko da irizpidea funtsaren gainerako zatiarekin, lehen kalkuluan eman zekiekeen zenbateko maximora iritsi ez diren ikastetxeen artean, eta horrela jarraituko da, behar beste aldiz.

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak, ofizioz, berak antolatzen dituen hezkuntza-programetan ikastetxeak izena emanda duen egiaztatuko du, onartutako ikastetxeek programa horietan gastuen aurreikuspena egin dutenean.

Ez da kontuan hartuko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programa jakin bat garatzeko lekura ikasleak garraiatzeak sortutako gastuaren aurreikuspena, ikastetxeak ez badu formalizatu programa horri dagokion izen-ematea.

b) Gainerako kreditua, ehuneko 50, onartutako eskabideen artean banatuko da proportzionalki, ondorengo atal hauetako bakoitzean ikastetxe bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren arabera:

– Dagokion ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopuruaren araberako puntuazioa. Horrela, 2019-2020 ikasturtean zenbat haur izan diren matrikulatuta, horrenbeste puntu esleituko zaizkio horietako bakoitzari.

– Bekadunen kopurua bider hiru egin ondoren ateratzen den puntuazioa, betiere, Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak 2019-2020 ikasturteaz emandako datuen arabera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxe publikoen kasuan, aurreko puntuazioa bider bi egingo da berriro.

Bekadun ikasletzat joko dira 2019-2020 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko beka jaso duten ikasleak, 2019ko irailaren 24eko Aginduak, Hezkuntzako sailburuarenak, xedatutakoaren arabera.

– Ikastetxeak "Hamaika Esku" esku-hartze planean parte hartzen badu, aurreko puntuazioa bider bi egingo da berriro ere.

12. Ebazteko eta jakinarazteko epea

2020rako Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera. Oinarri orokor horiek 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn (147. zenbakian) argitaratu ziren, eta webgunean (vitoria-gasteiz.org/subvenciones) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke.

13. Diru-laguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

13.1. Dirulaguntza ordaintzea: Udalak ordainketa aldeztu aurretik egingo du, bi zatitan: lehenengo ordainketa, 2020ko aurrekontuaren kargura; eta bigarren ordainketa, 2021eko aurrekontuaren kargura; azken hori 2021erako udal-aurrekontuan horretarako kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da.

13.2. Diru-laguntza justifikatzeko epea: 2020ko azarotik abendura bitarteko aldirako eta 2021ko urtarriletik ekainera bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren justifikazioa batera egingo da, aldi bakarrean. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2021ko ekainaren 30an amaituko da.

13.3. Diru-laguntzaren justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu behar ditu ikastetxeak:

– Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatu dituen eta ikastetxea 2020-2021 ikasturterako izena emanda dagoen hezkuntza-programak (Arte eta Historia Ibilbideak, Gasteiztxo eta Musika Adierazpena) biltzen dituen zerrenda; datak, parte hartu duten ikasleak eta egindako gastua ere adierazi behar dira (oinarri espezifiko hauekin batera doan 2. eranskina).

– Diru-laguntzaren xede den zerbitzurako erabilitako funts propioen edota, halakorik bada, beste erakunde batzuetatik jasotako frogagiriaren zerrenda (oinarri orokorretako 1-J eranskina).

– Diru-laguntzaren xede den garraio-zerbitzuarekin lotutako gastuen agiriaren zerrenda (oinarri orokorretako 2-J eranskina).

- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea (oinarri orokorretako 3-J eranskina).
- Diruz lagunduko zerbitzuari dagozkion fakturak, jatorrizkoak, eta fakturak aurreikusitako garraio-zerbitzuaren ondorioz sortutakoak direla dioen zinpeko adierazpena; bai eta agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria ere (oinarri orokorretako 5-J eranskina).

Garraio kolektibo publikoa erabili bada, egindako gastua xede horretarako jaulkitako txartelen bidez justifikatu ahal izango da. Guztiek egun eta ordu berean emandakoak izan behar dute, eta hezkuntza-programara joateko egindako ibilbidearekin eta hari dagokion egunarekin bat etorri behar dute.

14. Informazioa eta aholkularitza

Deialdi honen esparruan diru-laguntza eskatzeko interesa duten ikastetxeei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerarako, Dorleta Berzosa Pérez de Arenaza andrearengana (telefonoa: 945.161616, 6540 luzapena / dberzosa@vitoria-gasteiz.org) jo dezakezue.

15. Itzultzea

Laguntza (zati bat edo osorik) gauzatu ez bada edo justifikatu ezin bada, jasotako zenbatekoen eta, kasua bada, dagozkien interesen sarrera erakusten duen bankuko egiaztagiria, udalaren kontuan (Kutxabank: ES03 2095 0611 03 1090952416) egina, aurkeztu beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari.

Vitoria-Gasteizen

Zuzendariaren izen-abizenak

(Jatorrizko sinadura eta zigilua)



2020-2021 IKASTURTEAN VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO HEZKUNTZA ZERBITZUAREN HEZKUNTZA-PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEENTZAKO GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA.

Izena emate orria sinatu baino lehen, irakurri orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa. Antes de firmar la solicitud, debe leer la Información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Garraioa diru-laguntzari dagokionez heritarren eskakizunak artatzea eta udal eskumeneko prozedurak izapidatzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekinbat etorrta. Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con la convocatoria de ayudas al transporte , así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/ 2015.
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.

Vitoria-Gasteizen

Zuzendariaren izen-abizenak

(Jatorrizko sinadura eta zigilua)



2020-2021 IKASTURTEAN VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO HEZKUNTZA ZERBITZUAREN HEZKUNTZA-PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEENTZAKO GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA.

Izena emate orria sinatu baino lehen, irakurri orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa. Antes de firmar la solicitud, debe leer la Información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Garraioa diru-laguntzari dagokionez heritarren eskakizunak artatzea eta udal eskumeneko prozedurak izapidatzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekinbat etorrta. Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con la convocatoria de ayudas al transporte , así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/ 2015.
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.